


Industriaren prezioak %2,6 igo ziren

Industria prezioen indizea (IPRI)

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, **Euskadiko IPRI indizea %2,6 igo zen martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean**. Igoera hori, batez ere, energiaren garestitzeak (%15) eragin du, Koke-lantegiak eta petrolio-fintzeak bultzatuta. Igoera horrek, petrolioaren merkatuko tentsioen testuinguruan, konpentsatu egin ditu kontsumo-ondasunen eta bitarteko ondasunen beherakada txikiak.

Martxoan gaualdiak %0,9 hazi dira

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak



Iturria: Eustat.


2026ko martxoan, Euskadiko hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %0,9 igo ziren, 2025eko martxoarekin alderatuta. Zehazki, 544.312 gaualdi erregistratu ziren, serieko bigarren zifrarik altuena 2024koa kenduta. Hala ere, urte hartan Aste Santuko oporrak martxoan izan ziren oso-osorik, eta aurreten, berriz, bi jaiegun bakarrik egon dira martxoan.



Euskadiko esportazioak %5,9 murriztu ziren otsailean

Ondasunen esportazioak atzerrira

Urte bakoitzeko otsaila. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %5,9 jaitsi ziren otsailean urte arteko tasan. Eustaten arabera, esportazioak 2.528 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urteko hilabete bereko 2.686 milioien aldean. Ondasun energetikoen salmentak %45,2 jaitsi ziren eta ez-energetikoenak %4,1.

Euskadiko langabezia tasak %6,7an jarraitzen du

Langabezia tasa EAEn

Ehunekoak



Iturria: Eustat.

BJA inkestaren arabera, langabezia tasa %6,7an kokatu zen 2026ko lehen hiruhilekoan, 2025ko azken hiruhilekoarekin alderatuta bost hamarren gehiago. Gorakada hori ohiko da urte hasieran eta 5.900 langabe gehiago suposatzen du. 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, langabezia hiru hamarren jaitsi da eta 1.300 pertsona gutxiago daude langabezian.